



Epaitegiek artxibatu egin dute AP-1 autobideko Arlaban-Eskoriatza tarteko obrei buruzko kereila

Gipuzkoako erakundeen "funtzionamendu onaren eta zuzentasunaren" berrespen gisa balioetsi du auto judiziala Eider Mendoza diputatu nagusiak.

Eider Mendozak, Gipuzkoako diputatu nagusiak, lehen balorazio bat eskaini du gaur goizean, 2015an Bildu buru zuen foru gobernuak AP-1 autobideko Arlaban-Eskoriatza Iparra zatiko obren likidazioari buruz jarritako kereila artxibatu izana dela eta. Mendozaren esanetan, Aldundiaren, Bidegiren eta kereila honetan "modu bidegabeen seinalatuak" izan ziren pertsonen "izen ona eta zuzentasuna" berresten du auto judizialak eta, aldi berean, azaleratzen du Gipuzkoako erakundeei kalte egiteko orduan inolako erreparorik izan ez zutenen jokaera bidegabea, "datu okerrak" eta "omisioak" baliatuz, euren aurkari politikotzat jotzen zutenari zuzenean kalte egiteko erabili zituztelako erakundeak.

Mendozak komunikabideen aurrean egin ditu adierazpen horiek, Azpeitiko epaitegiaren autoa dela eta. Auto horrek artxibatu egiten du aipatutako obraren zuzendariaren, UTE Arlaban kontratistaren ordezkariaren eta Bidegiko orduko zuzendari teknikoaren aurkako auzia. Egun, kereilaren euskarri bakarra Batzar Nagusietako EH Bilduko hainbat kide ohi ziren akusazio partikular gisa, Fiskaltzak eta Aldundiak berak jarduketak artxibatzeke eskatu baitzuten.

Diputatu nagusiak gogorarazi duenez, 2015-2019 legegintzaldiaren hasieran, Aintzane Oiarbidek zuzendutako Bide Azpiegiturako departamentuak txosten bat eskatu zuen, foru-teknikariak eginga eta sinatua, kereilaren oinarri zen dokumentazio teknikoa berrikusteko eta, bertan, "kalkuluetan egindako hainbat akats" identifikatu zituzten. Mendozak azaldu duenez, auto judizialak egiaztatu egiten ditu 2015ean epaileen aurrean "aurkeztutako txostenen akats eta omisio ugariak, kereilarekin batera aurkeztutako txostenen ezarritako ondorio guzti-guztiak baliogabetzen dituztenak".

"Egindako lekukotza- eta peritu-deklarazioen jarduketetako dokumentazio zabalak agerian utzi ditu jarduketa hauen jatorri diren kereilekin batera aurkeztutako peritu-txostenak zituen inkongruentzia ugariak", dio autoak. "Kereilan jasotako datuak ez dira egiaztatu, ezta zantzu gisa ere, kontrakoa baizik, egiaztatu da kereilaren txosten sostengatzailea akatsez beteta zegoela", jasotzen du autoak eta, horregatik, "behin-behineko artxiboa" erabaki du, eta apelazio-helegitea aurkez dakioke, jakinarazten denetik bost eguneko epean.

Mendozak "zuhurtziaz" hitz egin nahi izan du Azpeitiko epaitegiaren autoaren inguruan, behin-behineko artxibatzea delako eta oraindik ere epaitegietan jarraitzen duelako EH Bildu buru zuen foru gobernuak. Hala ere, esan du lehen auto horrek "argi eta garbi" ezartzen duela, alde batetik, delitua egon zitekeen zantzurik ere ez dagoela, eta, bestetik, egiaztatzen dituela kereilarekin batera aurkeztutako dokumentazioan dauden "akats eta omisio deigarriak".

Oinarri horrekin, diputatu nagusiak "gure erakundeen izen ona eta osotasuna aldarrikatu" nahi izan du, kasu honetan espreski Aldundiarena eta Bidegirena, bai eta bere garaian kereila "bidegabe eta funtsik gabeko" horrek zipriztindu zituen langile, funtzionario eta ordezkari publiko guztiena ere. Kereila horrek, bere ustez, "helburu alderdikoiak" baino ez zituen, eta 2015eko



hauteskunde kanpaina hasi baino hiru egun lehenago aurkeztu zela gogorarazi du. "Politikan denak ez du balio, eta are gutxiago pertsonen ohorearen eta erakundeen sinesgarritasunaren aurka zuzenean jardutea, datu okerretan eta funtsik gabeko interpretazioetan oinarrituta, arerio politikoari erasotzea beste helbururik gabe", adierazi du.

Amaitzeko, Mendozak Gipuzkoako erakundeen funtzionamendu egokia eta zintzoa aldarrikatu du, eta "etengabeko konpromisoa" eskatzen duen errealitatea dela aipatu du. Zehazkiago, Bidegi sozietate publikoaren lana eta "ezinbesteko" funtzioa azpimarratu ditu, erakunde "sendo eta aitzindaria" baita, eta bere zeregina funtsezkoa izan baita lurraldean bide-sare moderno eta aurreratu bat eduki ahal izateko.

Donostia, 2023ko irailaren 6an.



El juzgado de Azpeitia declara el sobreseimiento de la querrela sobre las obras de la AP-1 en el tramo Arlaban-Eskoriatza

La diputada general, Eider Mendoza, interpreta el auto judicial como un refrendo “al buen funcionamiento y la integridad” de las instituciones guipuzcoanas.

La diputada general de Gipuzkoa, Eider Mendoza, ha informado esta mañana del sobreseimiento de la querrela interpuesta por el gobierno foral gobernado por Bildu en referencia a la liquidación de las obras del tramo Arlaban-Eskoriatza Norte en la AP-1, una decisión judicial que ha valorado como un refrendo “al buen nombre y a la integridad” de la Diputación, de Bidegi y de las personas que fueron tan “injustamente tratadas y señaladas” por esta querrela, así como al “descrédito” de quienes no tuvieron ningún reparo a la hora de menoscabar a las instituciones guipuzcoanas valiéndose de “datos erróneos” y de “omisiones” con el objeto de dañar a un rival político.

Mendoza ha realizado estas declaraciones ante los medios de comunicación, con motivo del auto del juzgado de Azpeitia que sobresee la causa que se mantenía abierta contra el director de la mencionada obra, el representante del contratista UTE Arlaban y el entonces director técnico de Bidegi. La querrela se encontraba sostenida únicamente por varios ex miembros del grupo de EH Bildu en las Juntas Generales como acusación particular, al haber solicitado el Ministerio Fiscal y la propia Diputación el sobreseimiento de las actuaciones.

La diputada general ha recordado que, a comienzos de la legislatura 2015-2019, el departamento de Infraestructuras Viarias dirigido por Aintzane Oiarbide encargó un informe realizado por técnicos forales que revisaba la documentación técnica en la que se basaba la querrela, identificando en ella “errores en los cálculos que no se consideraban fortuitos”. Según ha apuntado Mendoza, el auto judicial da confirmación de la existencia de “innumerables deficiencias, errores y omisiones en los informes presentados que invalidan todas y cada una de las conclusiones establecidas” en el informe presentado junto con la querrela en 2015.

“La extensa documental obrante en las actuaciones con las declaraciones testificales y periciales practicadas no ha hecho sino poner de manifiesto las numerosas incongruencias que presentaba el informe pericial presentado junto con la querrela origen de las presentes actuaciones”, afirma el auto. “No habiendo acreditado, si quiera de forma indiciaria, los hechos recogidos en la querrela sino al contrario, habiéndose acreditado que el informe sustentador de la querrela estaba repleto de errores”, el auto procede a acordar el “sobreseimiento provisional”, al que cabe interponer recurso de apelación en un plazo de cinco días desde su notificación.

Mendoza ha mantenido una posición de “prudencia” ante el auto del juzgado de Azpeitia, al tratarse todavía de un sobreseimiento provisional y al seguir todavía en sede judicial la primera querrela puesta por el gobierno foral liderado por EH Bildu, correspondiente a la querrela de Basagoiti. Sin embargo, ha afirmado que este primer auto establece “con absoluta claridad”, por un lado, la inexistencia ni siquiera de indicios constitutivos de delito y, por otro lado, los “llamativos errores y omisiones” existentes en la documentación presentada junto con la querrela.

Con esa base, la diputada general quiso “reivindicar el buen nombre y la integridad de nuestras instituciones”, en este caso de la Diputación y de Bidegi, así como de todas las personas



trabajadoras, funcionarias y representantes públicos que en su día ser vieron salpicados por esta querrela “injusta e infundada” que solamente perseguía “fines partidistas”, tal y como demuestra su presentación justo tres días antes de que arrancara la campaña electoral de 2015. “En política no todo vale y, mucho menos, actuar directamente en contra de la honorabilidad de las personas y de la credibilidad de las instituciones, basándose en datos erróneos e interpretaciones infundadas, y sin contar con otro objetivo que atacar al contrario político”, ha afirmado.

Para finalizar, Mendoza ha reivindicado una vez más el buen funcionamiento de las instituciones guipuzcoanas, una realidad que exige “un compromiso continuo”. Más concretamente, ha subrayado la labor y la función “vital” de la sociedad pública Bidegi, una entidad “sólida y pionera” cuyo papel ha resultado y resulta clave para contar una red viaria moderna y avanzada en el territorio.

Donostia, 6 de septiembre de 2023.